



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 12a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—11-23/LEY-00010. Foru Legea, Nafarroako Arrantzaren Kudeaketari buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-23/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Korrika lasterketari berriz ere ez laguntzeko eta diru publikoaren bidez ez finantzatzeko konpromisoa hartzen baitu. Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-23/PES-00244. Galdera, Petilla Aragoi zuntz optikoa ez hedatzeko arrazoiei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (5. or.).

—11-23/PES-00245. Galdera, Kohesiorako-Banda Zabalerako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko 2021eko Programaren (ÚNICO-Banda Ancha) laguntzen onuradun izan behar ziren 115 udalerrien egotzari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (6. or.).

—11-23/PES-00246. Galdera, Osasunbidea-NOZen emakumeen genitalen mutilazioaren inguruko berariazko prestakuntza emateari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (7. or.).

—11-23/PES-00247. Galdera, ijito migratzaileak Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programan sartzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (8. or.).

—11-23/PES-00248. Galdera, patologia neurologikoak dituzten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko irizpide edo protokoloari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).

—11-23/PES-00249. Galdera, kirola eta desgaitasuna babesteko 2022an eta 2023an sustatutako ekintzei buruzkoa. Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (10. or.).

—11-23/PES-00250. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak GAN-NIKeko zuzendari-kudeatzailea kargutik kentzeko eta beste pertsona bat izendatzeko jarraitutako irizpide teknikoari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).

- 11-23/PES-00251. Galdera, Gobernu Irekiaren webguneari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00001. Galdera, toki-administrazioetan katu-koloniak kudeatzeko programak ezartzeko protokoloari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00002. Galdera, hiri-eremuan ehiza-espezieen aleak daudenean jarduteko protokoloei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00003. Galdera, "Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea" 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 1/2024 ebazpena, urtarrilaren 8koa, zeinaren bidez 11-23/PES-00142 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkuran sartzen baita, ahoz erantzuteko (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/CDP-00010, 11 eta 12. "Hezkuntzari", "Osasunari" eta "Enpleguari" buruzko eztabaidak antolatzeko arauak (15. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (16. or.).
- 11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (16. or.).
- 11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

11-23/LEY-00010. Foru Legea, Nafarroako Arrantzaren Kudeaketari buruzkoa

AKATS ZUZENKETA

Aipatu foru legearen xedapen gehigarri baka-
rrean akats bat dagoela ikusita, honako zuzenketa
hau egitea eskatzen da:

Honako hau esan ordez:

“Servicio de Basozainak/Guardería de Medio
Ambiente”

honako hau esan behar du:

“Servicio de Basozainak/Guarderío de Medio
Ambiente”

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Korrika lasterketari berriz ere ez laguntzeko eta diru publikoaren bidez ez finantzatzeko konpromisoa hartzen baitu

VOX NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Korrika lasterketari berriz ere ez laguntzeko eta diru publikoaren bidez ez finantzatzeko konpromisoa hartzen baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren babesean, honako mozio

hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan abenduaren 13an, Nafarroako Parlamentuko lehendakari Unai Hualdek bere bulegoan hartu zituen Ane Elordi eta Xabier Gartzia –Korrikaren arduradunak–, martxoan, Irundik Baionaraino, Harro Herri lemapean AEK-k euskararen alde antolatzen duen lasterketaz aritzeko.

Nafarroaren eta, hortaz, nafar guztien diru publikoa lortzeko modua kilometroak erostea da, eta ekitaldi horrek ez du Nafarroaren errealitatea errespetatzen. Euskararen aldeko kontzientzia piztea eta funtsak nahiz dirulaguntzak jasotzea da Korrikaren helburua.

Nafarroako Parlamentuak, herri-borondatearen ordezkaria den aldetik, ez du euskal hizkuntza politizatu behar, zeren beste Korrika batzuetan argi geratu baita politizazio hori gertatu dela, ETako presoen aldeko erreibindikazioak egin dira-eta.

Hori dela-eta,

– Nafarroako Parlamentuak Korrikari berriz ere ez laguntzeko eta diru publikoaren bidez ez finantzatzeko konpromisoa hartzen du.

Iruñean, 2023ko abenduaren 15ean

Eleduna: María Teresa Nosti Izquierdo

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00244. Galdera, Petilla Aragoi zuntz optikoa ez hedatzeko arrazoiei buruzkoa**ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Petilla Aragoi zuntz optikoa ez hedatzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Nafarroako Gobernuak 2021eko abenduaren 16an argitaratu zuen prentsa-ohar baten bidez Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari ohi Juan Cruz Cigudosak iragarri zuen zuntz optikoa jarriko zela Petilla Aragoi, baina alkateak Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen lan-bilkuran salatu duenez oraindik ere ez da halakorik egin. Zergatik?

Iruñean, 2023ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00245. Galdera, Kohesiorako-Banda Zabalerako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko 2021eko Programaren (ÚNICO-Banda Ancha) laguntzen onuradun izan behar ziren 115 udalerrien egoerari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Kohesiorako-Banda Zabalerako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko 2021eko Programaren (ÚNICO-Banda Ancha) laguntzen onuradun izan behar ziren 115 udalerrien egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2021eko abenduaren 16an, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen Nafarroako 115 udalek jasoko zituztela Kohesiorako-Banda Zabalerako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko 2021eko Programaren (ÚNICO-Banda Ancha) laguntzak, banda zabal ultralasterreko sareak hedatzeko eta zabalatzeko.

Nafarroako honako herri hauek daude ÚNICO-Banda Ancha 2021 programari esker abiadura

azkar-azkarreko banda zabaleko sareen estaldura emateko azpiegiturak hedatuko diren eskualdeetan: Oibar, Allin, Andosilla, Anue, Araitz, Arakil, Aranguren, Arano, Artzi, Arguedas, Aribere, Arroitz, Atetz, Aiegi, Barasoain, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Biurrun-Olkotz, Cadreita, Caparrosa, Cárcar, Zarrakastelu, Cascante, Kaseda, Castejón, Gazteluberri, Cintruénigo, Zirauki, Zizur, Corella, Deikastelu, Erro, Eslaba, Lizarra, Esteribar, Etxalar, Ezkabarte, Ezkaroze, Fitero, Funes, Fustiñana, Galipentzu, Galoze, Girguillao, Hiriberri, Igantzi, Iguzquitza, Imotz, Irañeta, Ituren, Itza, Itzagaondoa, Txulapain, Lana, Lantz, Larraga, Elizagorria, Legarda, Leotz, Lerín, Lesaka, Lezaun, Ledea eta Lizoain-Arriasoiti.

Honako herri hauek ere jasoko dituzte deialdi horretako laguntzak: Lodosa, Los Arcos, Irunberri, Luzaide, Martzilla, Mérida, Mendabia, Metauten, Milagro, Murieta, Murillo el Cuende, Murillo el Fruto, Nabaskoze, Obanos, Otsagabia, Odieta, Olaibar, Oloritz, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Iruña, Petilla Aragoi, Gares, Puiu, Ribaforada, Erromantzatua, Erronkari, San Martín Unx, Zangoza, Santakara, Sartaguda, Sesma, Tafalla, Tuter, Uharte Arakil, Ultzama, Untzue, Urdazubi, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Urzainki, Uztarroze, Egue-sibar, Ollaran, Valtierra, Bidankoze, Esa eta Zugarramurdi.

1.- Zein da laguntza horiek jaso behar zituzten 115 udal horietako bakoitzaren egoera zehatza?

2.- Zergatik ez da oraindik jarri zuntz optikoa halakorik ez daukaten udaletan?

Iruñean, 2023ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00246. Galdera, Osasunbidea-NOZen emakumeen genitalen mutilazioaren inguruko berariazko prestakuntza emateari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasunbidea-NOZen emakumeen genitalen mutilazioaren inguruko berariazko prestakuntza emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroan urteak dira emakumeekin, haien bikotekideekin eta alabekin lan egiten dela, arrakastarekin lan egin ere, erkidego osoa sentibilizatuta eta konprometitu egon dadila lortzen

ari baikara, emakumeen mutilazio genitalarekin amaitzeko.

Osasun-arloko profesionalak funtsezko eginkizuna betetzen dute praktika horren prebentzioan. Osasun-arloko profesionalentzat garrantzitsua da tresnak edukitzea esku-hartzea eraginkorra izateko, hartara profesional horiek emakumeen mutilazio genitalari aurre egin ahal izan diezaioten arrisku hori dagoen herrialdeetatik heldutako familiekin.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak berariazko zer prestakuntza garatzen du emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko?

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zenbat profesionalak –Oinarrizko Osasun-laguntzakoak nahiz Laguntza Espezializatukoak edo Osasun Mentalekoak– jaso dute prestakuntza azken hiru urteotan?

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer aurreikuspen darabil gogoan 2024rako, emakumeen mutilazio genitalaren arloko prestakuntzari dagokionez? zenbat profesionali emanen dio prestakuntza hori?

Iruñean, 2023ko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-23/PES-00247. Galdera, ijito migratzaileak Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programan sartzeari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, ijito migratzaileak Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

2020an, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailtzak eta Gaz Kalo, La Majarí eta La Romaní ijito-elkarteek Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programa taxutu eta argitaratu zuten.

Programa hori etengabe egokitzen zaie ijitoen komunitatearen osasunari nahiz esparru tekniko eta politiko indardunei.

Ijitoen komunitatearen osasun-maila hobetzea da programaren helburu orokorra, osasunaren arloan dauden desberdinkeriak hiru esparrutan

murriztuz: osasun-arloko zerbitzuen irisgarritasuna eta erabilera, osasun-maila eta osasun-determinatzaileak.

Programak ijitoen komunitatea du ardatz, eta arreta berezia eskaintzen die haurrei eta zahartze osasungarriari, non eta bizi, jolastu, ikasi edo lan egiten duten tokietan, erakundeetan eta komunitateetan. Horretarako, honako estrategia hauek baliatzen ditu: ijitoen komunitatearen parte-hartze, ahalduz eta bitartekaritza; berdinen arteko hezkuntza; ijitoen osasunaren sustatzaileak, eta profesionalentzako babesa eta prestakuntza.

Programa horrek, gure ustez, ijito autoktonoak ditu jomuga, baina Nafarroan badira jatorri migranteko beste ijito komunitate batzuk (errumaniarrak, batik bat) beren osasun-maila hobetu behar dutenak, eta honako arlo hauetan pairatzen dituzten desberdinkeriak murriztu: irisgarritasuna, osasun publikoko zerbitzuen laguntza-mailen gaineko ezagutza eta osasun-determinatzaileak.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren "Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko" programak ijito migranteak ere hartzen al ditu?

– Ijito migranteak ez hartzeko arrazoiak.

– Nafarroan finkatutako ijito migranteen populazioa osatzen duen pertsona-kopuruari buruzko informaziorik ba al dago?

– Taxutu al da berriazko programarik ijito migrante horiek Nafarroako osasun publikoko zerbitzuak eskuratzeko dauzkaten arazoak jorratzeko? Zerk eragotzi du hori egitea?

Iruñean, 2023ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-23/PES-00248. Galdera, patologia neurologikoak dituzten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko irizpide edo protokoloari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, patologia neurologikoak dituzten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko irizpide edo protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ubarmin Klinika-NOU-D da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erreferentziako zentroa Nafarroan paziente neurologikoak artatzeko. Halere, aspaldi detektatu dugu elkarte pribatuetara bideratzen ari direla zenbait patologia

dauzkaten pazienteak (esklerosi anizkoitza, AEA, parkinsona...). Orobat egiaztatu dugu Neurologia/Iktus Unitateko pazienteak zentro itundu edo pribatuetara bideratzen ari direla.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut:

– Zer irizpide edo protokolo erabiltzen da AEA, esklerosi anizkoitza, parkinsona... duten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko?

– Zer irizpide edo protokolo erabiltzen da Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Neurologian edo/eta Iktus Unitatean ospitaleratu eta errehabilitazioko tratamendua behar dutelako tratamendua –ambulatorioa nahiz ospitaleratu– Ubarmin Klinika-NOU-Dn eta zentro itundu edo pribatuetan jarraitzen duten pazienteak bideratzeko?

– AEA, esklerosi anizkoitza, parkinsona... duten zenbat paziente bideratu dira 2023an elkarte pribatuetara?

– Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Neurologian edo/eta Iktus Unitatean ospitaleratu eta errehabilitazioko tratamendua behar duten zenbat paziente bideratu dira zentro pribatu edo itunduetara eta zenbat artatu dira Ubarmin Klinikian, hala tratamendu ambulatorioetarako nola ospitaleratu-ta, 2023an?

Iruñean, 2023ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-23/PES-00249. Galdera, kirola eta desgaitasuna babesteko 2022an eta 2023an sustatutako ekintzei buruzkoa

JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, kirola eta desgaitasuna bebesteko 2022an eta 2023an sustatutako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer ekintza sustatu du 2022an eta 2023an kirola eta desgaitasuna babesteko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

11-23/PES-00250. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak GAN-NIKeko zuzendari-kudeatzailea kargutik kentzeko eta beste pertsona bat izendatzeko jarraitutako irizpide teknikoei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak GAN-NIKeko zuzendari-kudeatzailea kargutik kentzeko eta beste pertsona bat izendatzeko jarraitutako irizpide teknikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer irizpide tekniko baliatu du Aierdi kontseilariak Luis Sanz GAN-NIKeko zuzendari kudeatzaile kargutik kentzeko eta haren ordeztziaz Gómez izendatzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/PES-00251. Galdera, Gobernu Irekiaren webguneari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Gobernu Irekiaren webguneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-ko Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Sozietate publikoak, fundazio publikoak eta Administrazio Publikoarekin lotutako zuzenbide publikoko entitateak sortzeari edo horien funtzionamenduari buruz Nafarroako Gobernuak hartzen dituen erabakiei buruzko Gobernu Irekiaren web-orrian argitaratutako azkena 2019-11-13koa da. Zergatik?

Noiz gaurkotuko da informazio hori?

Iruñean, 2023ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00001. Galdera, toki-administrazioetan katu-koloniak kudeatzeko programak ezartzeko protokoloari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, toki-administrazioetan katu-koloniak kudeatzeko programak ezartzeko protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legearen helburua da, besteak beste, aske bizi diren katuen populazioa kontrolatu, babestu eta kudeatzea; legearen 40. artikuluan, berriz, autonomia-erkidegoei agintzen zaie protokolo esparruak garatu ditzaten, non herrietan katu-koloniak kudeatzeko programak (CER/S metodoa) ezartzeko erreferentzia izanen diren gutxieneko betekizunak eta prozedura ezarriko baitira.

Zertan da Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legearen aginduz toki administrazioetan katu-koloniak kudeatzeko programak ezartzeko erreferentzia izanen diren gutxieneko betekizunak eta prozedurak jasoko dituen protokolo esparruaren taxuketa?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00002. Galdera, hiri-eremuan ehiza-espezieen aleak daudenean jarduteko protokoloei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, hiri-eremuan ehiza-espezieen aleak daudenean jarduteko protokoloei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Orain dela bi aste jakin genuen hedabideen bidez foruzain baten lau tirok hil zutela basurde bat Iruñerriko hiri-ingurunean.

Hiri-autobus batek animalia zapaldu ondotik abiarazitako operatibo hartan Iruñeko udaltzainek ere parte hartu zuten.

Animalia hil ondoren, operatiboaren argazkiak eta bideoak, ez oso itxurakoak eta zenbaiten sentikortasunari min eman diezaioketenak, ibili ziren sare sozialetan.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ba al du segurtasun indar eta kidegoentzako jarduketa-protokolorik ehiza espezieen aleak hiri-ingurunean azaltzen direnerako?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00003. Galdera, “Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea” 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, “Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea” 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut 40.000 €-ko zuzkidura duen “Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea” 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruz:

1.- Zer ekintza egin da horren baitan? Esleipen-hartzaileen xehetasunak eta ekintza bakoitzari buruzko informazio xehakatu jaso nahi dut.

2.- Bukatu al dira esleitutako lanak? Hala baldin bada, horien kopia jaso nahi dut.

3.- Esleitutako lanen bat oraindik bukatu gabe baldin badago, noizko bukatuko dela aurreikusten duzue?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 1/2024 ebazpena, urtarrilaren 8koa, zeinaren bidez 11-23/PES-00142 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkuran sartzen baita, ahoz erantzuteko

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak aipatu idatzizko galdera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartzea eskatu du, galdera Nafarroako Gobernuari igorri eta hura erantzuteko ezarritako hamabost eguneko epearen ondoren emandako luzapena igaro baita.

Kontuan izanda Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua ezartzen duela galderen idatzizko erantzuna galdera Gobernuari igorri eta hurrengo hamabost egunen barruan eman beharko dela, ezertan eragotzi gabe beste luzapen bat ematea, eta Lehendakari-tzaren esku uzten duela –galdegilearen eskariz–, aipatu epean Gobernuak erantzunik bidali ez

badu, gai horretan eskudun den batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan galdera hura sartzeko aukera, eta hori dela Francisco Trigo Oubiña jaunak egindako eskaeran aipatzen den galderaren kasua, EBATZI DUT:

1. 11-23/PES-00142 espediente-zenbakia duen galdera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sar dadin agintzea, eskumena duen kontseilariak erantzun dezan.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki hau helaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/CDP-00010, 11 eta 12. "Hezkuntzari", "Osasunari" eta "Enpleguari" buruzko eztabaidak antolatzeke arauak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. "Hezkuntzari", "Osasunari" eta "Enpleguari" buruzko eztabaidak antolatzeke arauak onestea. Hona arauak:

"1. Eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia duten erabaki-proposamenak aurkezteko epea Osoko Bilkuraren aurreko eguneko 12:00etan bukatuko da. Talde parlamentario edo foru parlamentarioen elkarte bakoitzak gehienez ere 3 proposamen aurkeztu ahalko ditu.

Erabaki-proposamenak aurkezteko epea bukatuta, egun horretan bertan Mahaiak proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen edo foru parlamentarioen elkartearen eledunei helaraziko dizkie, azter ditzaten.

2. Eztabaida ekimena proposatu duen talde parlamentarioaren eledunaren mintzaldiarekin hasiko da eta hoge minutu iraunen du gehienez ere. Mintzaldi horretan eledunak bere jarrera azaldu beharko du, bai eta bere proposamenak defendatu eta gainontzeko talde parlamentarioek edo foru parlamentarioen elkarteak aurkezturiko erabaki-proposamenei buruz duen iritzia azaldu ere. Ondoren, gainerako talde parlamentarioen eta foru parlamentarioen elkartearen eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldi horretan eledunek haien jarrera azaldu beharko dute, bai eta haien proposamenak defen-

datu eta gainontzeko talde parlamentarioek edo foru parlamentarioen elkarteak aurkezturiko erabaki-proposamenei buruz duten iritzia azaldu ere. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat mintzatzen ahalko da, iraupen berarekin, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltzeko.

Eztabaida bitartean, lehendakariak izapidera onartzen ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, inongo talde parlamentario edo foru parlamentarioen elkarerik aurka azaltzen ez bada soilik onartzen ahalko dira zuzenketa horiek.

3. Proposamenen eztabaida amaiturik, 2. arauan ezarritako hurrenkerari jarraituz bozkatuko dira. Talde parlamentario edo foru parlamentarioen elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira".

2. Arauok Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko otsailaren 1eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentariaren elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako

kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 1eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. José Iruetagoiena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kon-

tseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 1eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

